



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Zuek zarete munduarentzat gatza”

2023ko otsailaren 5a
Urteko 5. igandea (A)

Mateo 5, 13-16.

Zuek zarete munduarentzat gatza. Baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertarako balio, botatzeko baizik eta jendeak zapaltzeko.

Zuek zarete munduarentzat argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen hiria. Kriseilua ere ez da pizten ontzipean ipintzeko, argimutilaren gainean baizik, etxeko guztiei argi egiteko.

Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten.

Zuek munduko argi zarete. Jainkoaren aintzaren argitasuna bere semealaben ekintzetan agertzen da, eta Jainkoagaz bat egitera dei egiten deusku.

GATZA ETA ARGIA

Jose Antonio Pagola

Ikasleek zoriontasunak bizi badituzte, eragina izango du gizartean haien bizierak. Jesusek berak esan die hori, ezin ahantzizko bi metafora z baliatuz. Erromak kontrolatzen duen inperio boteretsu hartan talde ezdeusa ematen duten arren, **«gatza izango dira lurtean» eta «argi munduan».**

Ez ote da hori uste barregarria? Baina Jesusek berak argitu die nola gerta daitekeen. Gatzak ez du ematen gauza handia denik; baina bere ondorioak izaten hasten da, hain juxtu, janariarekin nahastu eta ezkutatu egiten dela ematen duenean. Gauza bera gertatzen da argi bat pizten denean: soilik, ilunpean jartzean egiten ahal du argi.

Jesusek ez du buruan mundutik aparte bizi den Eliza bat, bere erritu eta irakaspenetan ezkutatu, bere ziborrari eta arazoei begira bizi dena. Jesusek jarraitzaile-talde bat tartekatu nahi izan du giza historian, zoriontasunak biziz bizitza eraldatzeko gai den talde bat.

Guztiek dakigu zertarako izan ohi den gatza. Alde batetik, janariei ez die uzten galtzen. Bestetik, gustua ematen die eta guk hobeto dastatu ahal izatea egiten du. Jatekoak onak dira, baina galdu daitezke; badute gustua, zaporea, baina graziarik gabeko gertatzen ahal zaizkigu. Gatza behar izaten dute.

Mundua ez da gaiztoa, baina galbidean jar dezakegu. Bizitzak badu bere gustua, baina graziarik gabeko gerta dakiguke eta gozorik gabeko. Zoriontasunak bizi dituen Elizak gizartea galdu ez dadin parte hartzen du, gehiago gizagabetu ez dadin. Haren ebanjelioa bizi duten Jesusen ikasleek biziaren benetako esanahia aurkitzen laguntzen dute.

Bada, alegia, arazo bat eta jakinaren gainean jarri ditu Jesusek bere ikasleak. Gatza gezatzen bada, ez da ezertarako on. Ikasleek beren ebanjelio-nortasuna galtzen badute, ezin emango dute Jesusek nahi lukeen fruiturik. Kristautasuna galtzen uzten da. Eliza desegina gertatzen da. Kristauak alferrik daude gizartean.

Gauza bera argiarekin. Guztiok dakigu argitasuna sortzeko dela. Kristauak biziak duen esanahirik hondokoena argitzen dute, baldin eta jendeak haiengan zoriontasunen **«egintzak»** ikus baditzake. Hargatik, ezin bizi daitezke ezkutuan. Halere, ez dute jardun behar jendeak ikus ditzan. Beren bizieraz argitasuna azalerratu behar dute gizartean, zeruko Aitaren benetako aurpegia ikusi ahal dadin.

Ez da zilegi Elizaz baliatzea geure gustuak eta lehentasunak asetzeko. Jesusek Eliza gatz eta argi izan dadin nahi izan du. Ebanjelizatzea ez datza gaur egungo sekularitasunari mundutar estrategiez aurre egitean. Are gutxiago Eliza «kontra-gizarte» bihurtzean. Soilik, ebanjelioa bizi duen Elizak erantzun diezaiokie Jesusen jatorrizko desirari.